

581ean, kronikariak idatzi zuenez, Leobigildo errege bisigodoak, Euskal Herriari eraso egin eta honen parte bat hartu ondoren, *Victoriacum* eraiki zuen (=Gasteiz bisigodo bat). Urte berean, iparraldetik Txilperico errege frankoak Bladastes generala bidali zuen euskaldunen kontra eta hemen galdu zuen, nonbait, armadaren parte on bat. Horrelako asko izan zen VI-VII. mendeetan. Baskoinek menperaezinak gertatzen ziren inguruko erreinu germaniar berrientzat. Tours-eko Gregoriok, 587an zera idatzi zuen: *Baskoinek, ordea, mendietatik lautadara etorritz, mabasti eta soroak bondatu zituzten, etxeak erre, eta bizilagun asko beren aziendekin preso eramán. Eta Austrobaldo dukeak sarri eraso bazien ere, ez zuen lortu neurri txikian mendekatzea baino.*

Iturria: Euskara, euskaldunon bizkuntza.

20



Iturria: Navarra, el estado vasco. (1999)

VI. mendetik aurrera baskoien eta frankoen artean ere borroka ugari izan ziren. Kroniketan orduan agertzen da lehen aldiz *VASCONIA* hitza.

Gatazkarik larriena Orreagan gertatu zen VIII. mendean, 778. urtean hain zuzen. Eta borroka horien ondorioz

baskoien arteko batasuna egin zen, eta Eneko Aritzak 824. urtean Nafarroako Erresuma sortu zuen. Penintsulan orduan karolingioak eta musulmanak borrokan ari ziren.

bezala bisigodoek harreman txarra izan zituzten euskaldunekin; ia hiru mendetan zehar etengabeko gerran aritu ziren –*gerra* hitza bera ere germaniarrek ekarria da–, ez zuten lortu indarrez euskaldunak menperatzerik, eta beti ere elkarren artean harreman gaiztoak izan zituzten. Errege bisigodoen epitafioetan “*Domuit vascones*” esaldia ageri da, hots, “euskaldunak menperatu zituen”. Baina esaldi hori behin eta berriro agertzeak erakusten du esaldi erretorikoa zela.

Bestalde, iberiar penintsulan latinizazioak sustrai sakonak zituen eta bisigodoen erresuma gorabehera, latinak –edo honen forma bilakatuak– bizirik iraun zuen, euskarak bezala. Bisigodoak eurak ere latinizatu egin ziren eta VII. menderako penintsulan ia galdua zuten euren hizkuntza. Hala ere, herri germaniarrek zenbait hitz utzi zituzten, geroago hizkuntza erromani-koetan txertatuko zirenak, baita euskararen ere.

Adibidez: *gerra, xaboi, ezproi, sala, harpa, gisa, arropa...* hitzek jatorri germaniarra dute eta gehienak hizkuntza erromanikoen bitartez hartu ditu euskarak.

Erdi Aroa

VIII. mendean arabiarrek penintsulan sartzen hasi ziren; 711. urtetik aurrera, zazpi urtean penintsula ia osoa mende hartu zuten, Euskal Herriaren mugaraino. 700 urte igaro zuten arabiarrek penintsulan, Gaztelak hasitako gerraren ondorioz kanporatu zituzten arte.

Euskaldunen eremuan, esan bezala, ez ziren sartu ia. Harreman onak izan zituzten euskaldunekin, Nafarroan bereziki (21). Eta, horrela, Banu Quasi familiarekin izan ziren harremanen ondorioz, Eneko Aritzak erregeak Nafarroako Erresuma sortu zuen, 824. urtean. Izan ere, berak eta Banu Quasiar agintari gorenak senidetza loturak zituzten: biek zuten ama bera, Onneca.

Hizkuntzari dagokionez, hainbat hitz hartu zituen euskarak arabieratik. Eta geroago sortuko zen gaztelanian ere ugari utzi zituen –latinaren ostean lexiko iturririk joriena da gaztelanian–. Euskarak arabieratik harturiko hitz asko, ordea, gaztelaniaren bitartez hartu ditu, beranduago: *azenario, azafrai, arroa, alkate, alguazil, tabike, azukre, algodoi, alfalfa, algara...*

Batzuetan euskarak gorde ditu zenbait hitz arabiar, gaztelaniak hartu ez dituenak: *alkandora, atorra...*

Errekonkista garaian, arabiarrek mendez mende hegoalderantz bultzatu zituztelarik, euskararen zabal-kunde aldi bat gertatu zen. Husturik geratzen ziren hego-mendebaldeko lurraldeetarantz hedatu ziren euskaldunak. Ekialde eta iparraldean (Akitania), berriz, atzera egin zuen.




Iturria: Navarra, el estado vasco. (1999)

21

Penintsula Kordobako Kalifatoaren garaian.

Frantziako karta batean.



Iturria: Euskara, euskaldunon bizkuntza.

22



23

Errioxan, Erdi Aroan, euskararen lekukotasun ugari daude:

- Donemiliagoko glosak: Errioxan fraide batek latinezko testu bati bere hizkuntzan, hots, euskaraz egindako ohar batzuk dira, glosak (22, 23). X. mendeko (950~) testigantza hori, dakigularik, euskaraz idatziriko lehen esaldiak dira.
- XIII. mendearen hasieran, agiri batean Ojastroko biztanleen eskubide bat jasotzen da: auzitegian euskaraz jardutekoa, hain zuzen ere; honek erakusten du Errioxan garai hartan euskaraz egiten zela.
- Gonzalo de Berceo idazle errioxarraren idazlanetan (*El Libro del Buen Amor*), nahiz eta gaztelaniaz idatzita egon, euskal hitz ugari agertzen dira: *Don Bildur*; *zatico*, *gabe* eta abar

Izan ere, garai hartan garatzen ari zen gaztelania. Euskararen mugako lurretan jaio zen (25) eta Errekonkistan lortutako botere politikoaren bidez Gaztelak penintsula osoan ezarri zuen, beste erromantze batzuk zokoratuz.

Nafarroari dagokionez, XIV. mendeko idazki garrantzi handiko batek (Kitab ar-Raw al-mitar) honela dio: "Iruñea mendi garai eta haran sakonek inguratutako dago; bertako biztanle gehienak euskaraz mintzo dira, eta ezinezko da haiei ezer ulertzea."

Antso Azkarra Nafarroako erregearen garaian euskara "lingua navarrorum" izendatu zen (1167), alegia, nafarren hizkuntza. Hala ere, botere politikoaren hizkuntza idatzia, gutxi batzuek zerabiltena, erromantze nafarra zen, eta geroago gaztelania, Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatzen amaitu ondoren (1200-1512).

LITERATURA

Errenazimendua eta Barroko Garaia (XVI-XVIII)

Garai honek gure literatura idatziaren hasiera markatzen du. Izan ere, 1545. urtean argitaratu zen lehen liburua euskaraz, izenburua latinez badu ere: *Linguae Vasconum Primitiae* (26), hau da, "Euskaldunen Hizkuntzaren Hastapenak". Poema liburua da eta bere autorea, Bernat Etxepare, Nafarroa Behereko herri txiki bateko apaiza izan zen, Donazarrekoa hain zuzen ere. Bernat Etxepare Eihalarren jaio zen, Donibane Garazi ondoan, eta harro ageri da euskara letren mundura sartu duelako, bere hizkuntza beste guztien pare, edo gorago, ikusi nahi duelarik:

Euskara, babil mundu guzira. Bertzeak oro izan dira bere goien gradora; orai bura iganen da bertze ororen gainera.

Oraidano egon babiz inprimatu bagerik, bi engoiti ebiltren mundu guzietarik.

Euskara, jalgi badi dantzara.

SANTIAGORAKO BIDEA. X. mendetik hasita XIX. mendera arte erromes ugari Europa osoetik Konpostelarako bidaia egiteko.



Iturria: Orbipean. Xamar. Pamiela, 1992.

AIMEZRY PICAUD erromesak, XII. mendean, euskarazko hitzen zerrenda bat bildu zuen (*Code Calixtinus*, 1132-1135).

Pirinio hegoaldeko biztanleak *nafarrak* deitzen dituz; iparraldekoak, ordea, *bascoiak*. Hala ere, ez direla bereizten dio: berdin jan, jantzi eta hitz egiten dutela. Hitz batzuk:

- Urcia (Deum),*
- ogui (panem),*
- ardum (vinum),*
- araign (pisces),*
- aragui (carnem)...*

Erromako Elizen karta. (1136)

Erresumak: Leon, Gaztela, Nafarroa (Euskal Herria), Aragoi, Katalunia...



Iturria: Gure Literatura.

26



Iturria: Euskara, euskaldunen bizkuntza.





Nafarroa, 1500.

27

Joanes Leizarragak itzulitako *Testamentu Berria*. 1571.




28

Iturria: Gure Literatura.



29

Iturria: Gure Literatura.



Iturria: Euskara, enskaltatamon bizkuntza.

30

Manuel Larramendi (1690-1766), euskararen apologistarik ezagunena.



Iturria: Biskaiatikak bilduma.

31

Bestalde, Erreforma protestanteak garrantzi handia izan zuen euskara idatziaren zabalkundearen. Horrela, Joana Albret (26) Nafarroako erreginak (Nafarroa Behe-rean) dotrina berria zabaltzeko xedez Testamentu Berriaren euskarazko itzulpena egiteko agindu zion Joanes Leizarraga lapurtarra buru zuen itzultzaile talde bati; halaber, otoitz liburu kalbinistaak ere euskararazi zituen. Hauek guztiak 1571n eman ziren argitara, Bordelen (28).

Erreforma protestanteak Euskal Herrian arrakastarik izan ez bazuen ere, itzulpen hauek bide bat ireki zuten eta bai kezka bat sortu ere euskal eliz gizon katolikoaren artean: katekesia herri hizkuntzan irakatsi beharra ikusten zuten, hain zuzen ere, eta horretarako behar ziren testu idatziak edo katezismoak euskaraz sortzeari ekin zioten.

Horrela, XVII. mendean, Lapurdiko Saran, gehienbat apaiz katoliko osaturiko talde batek literatur gune garrantzitsua osatu zuen: *Sarako Eskola* deitua. Mugimendu honen buru Pedro Agerre *Axular* nafarra izan zen eta *Gero* (29) bere obra gorenean euskarazko prosa literarioaren eredu aberats eta dotorea finkatu zuen.

Halere, Iparraldeko literatur loraldi hau gorabehera, euskarak ez zuen garai hartan ezelako ofizialtasunik. Gogoratu behar da 1539an Frantzisko I. Frantziako Erregeak latinaren ordez administrazioan frantsesa erabiltzeko agindua ezarri zuela. Horrela, bada, ez agiritan, ez testu teknikoetan euskarak ez zuen zabalkunderik izan.

Hegoaldean, hizkuntza mintzatuari dagokionean, badira zenbait testigantza (garai hartako agiria) euskarak garai honetan izan zuen zabalkundearen eta erabileraren berri ematen dutenak.

Horrela, badakigu XVI. mendean, Araban, herri gehienetan euskaraz egiten zela; Gasteizen, berriz, gaztelania zen nagusi, euskara ulertzen bazuten ere.

Nafarroan (30) ere badira XVI. mendeko datu batzuk: 451 herritan euskara egiten zen eta 58tan gaztelaniaz. Hizkuntza biak bereizten zituen isoglosak XVIII. mendera arte ez ziren mugitu; Tafalla eta Lizarra ziren Hegoaldeko muga-herri.

Apologistak

XVI-XVII mendeetan nolabait euskararen duintasunaren eta egokitasunaren aldeko joera bat sortu zen: euskararen apologistak edo aldarrikatzaileak. Maila teorikoan eta gehienbat gaztelaniaz idazten bazuten ere –Joanes Etxeberri *Sarakoa* salbu–, gure hizkuntzaren noranahikotasuna eta bikaintasuna predikatzen zituzten. Horrela, hizkuntza honi leporatzen zitzaizkion ezaugarri negatiboak garbitu nahi zituzten: behe mailako hizkuntza izatea, kulturarako desegokia eta abar; Garibaik, Pozak, Etxabek, Henak eta bestek go-

gor arbuaiatu zituzten horrelako argudioak. Gaztelera irakurtzen zuen jendeari zuzenduak ziren horien obrak. Apologi mugimendu honek hurrengo mendeetan ere izan zuen jarraipena.

XVIII. mendea

Hizkuntza mintzatuan, XVIII. mendean Araban galera nabarmena izan zuen euskarak. Iruñean eta Bilbon ere mende honetan bertako hizkuntzak etengabe-ko higadura jasan zuen, hurrengo mendean areagotu zena, gaztelania nagusitzeraino.

Era berean, euskararen eremu guztian gaztelaniaren erabilera etengabe hedatuz joan zen; Ipar Euskal Herrian ere antzera gertatu zen frantsesarekin. Izan ere, Frantziako Iraultzaren ondorioz (1789) euskal foruak (legeak) kendu eta instituzioak indargabetu egin zituzten Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan; ondoren frantsesa erabiltzeko obligazioa ekarri zuen legea ezarri zuten 1793an.

Apologisten mugimenduak idazle ospetsu bat eman zuten: Larramendi (31). Bere aitzindari batzuk bezala, honek ere gehienbat gaztelaniaz eman zituen bere idazlanak (32), bere helburua irakurle erdaldunei euskararen aldarrikapena eta gorespina aditzera ematea baitzen. Hala ere, Larramendiren ideologiaren bultzadaz, Hegoaldean euskarazko idazle asko sortu ziren, eta euskal literaturaren pizkunde bat gertatu zen Hegoaldean.

Aipamen berezia merezi du, ordea, Joanes Etxeberri Sarakoak (1668-1749). Honek apologi lanak egin zituen, baina euskaraz. Irakaskuntzan euskara sartzeko obrak idatzi zituen (33), eta eskariak horretarako orduko erakundeei. Bere ahaleginek ez zuten arrakastarik izan.

Elizgizonek eragin positiboa izan zuten idatzizko euskararen sorkuntzan eta zabalkundeetan; izan ere, Larramendik (jesuita), apaizak adoretu egiten zituen euren predikuetan nahiz liburuetan euskaldunen hizkuntza erabil zezaten; ondorioz, kleroaren eta herri xehearen artean halako identifikazio edo elkar hartze bat sortu zen erlijio gaietan: euskara zen batzuen eta besteen arteko lokarri.

XVIII. mendean Willhem von Humboldt (34), ospe eta maila handiko hizkuntzalari alemaniarra Euskal Herrira etorri zen eta, bertoko apologista batzuen eskutik, euskara ikasten eta ikertzen hasi zen. Euskararen antzinatasunak eta jatorri ezkuak nolabait liluratutik, Humboldt-ek hizkuntza hau sakon ikertzeari ekin zion, haren jatorriari buruz zenbait teoria agertuz: euskararen eta iberieraren arteko identifikazioa; biak hizkuntza bera zirela baiesten zuen eta euskara behinola penintsula osoan mintzatu zela.



Iturria: Gure Literatura.




Jakingarriak

- 1587. urtean Nafarroako 509 herrietarik 451n euskaraz egiten zen.
- XVII-XVIII mendeetan Lapurdiko Urruña, Donibane Lohizune eta Sara herriek hegoaldeko Pasaia, Hondarribia, Bera eta Bazten herriei bidalitako gutun batzuk euskara hutsean daude.
- 1811. urtean Napoleonen armadak Iruñeko kaleetan jartzen zituen agiriak euskaraz ere labeuden.




34

Wilhem von Humboldt hizkuntzalari.



35

Louis Lucien Bonaparte printzea.




36

Bonaparte printzearen euskalkien mapa. Londres, 1863.

Jakingarriak

- Euskarazko lehen astekaria Los Angeles (AEB) hirian kaleratu zen, 1885ean.
- 1888an Bizkaiko Diputazioak euskara katedra bat sortu zuen Bilbon. Hiru hauek aurkeztu ziren: Azkue, Arana eta Unamuno. Nork lortu ote zuen?



XIX. mende amaiera. Bizkaiko Triano-Somorrostroko meategietan.



R. M. Azkue (1864-1951)

Lekeitiar honek lan eskerga egin zuen euskararen ikerketan: hiztegi izugarria, morfologi ikerketak, literatura, historia, etnografia...

Bere garaiko euskararen jakintsurik handiena izan zen.



S. Arana (1865-1903)

Bilbotar honek gaztetan ikasi zuen euskara. Mugimendu politiko baten aldarrikatzailea (bere anaia Luisen itzalean). EAJ sortu zuen, ikurriña, *Bizkaitarra* egunkaria, *Euzkadi* aldizkaria. Nazio kontzientzia piztu zuen.

Hizkuntzan berrikuntzak bultzatu zituen: ortografian, lexikoan, joskeran. *Garbizalekeria* eragin zuen: euskara berria eta garbia.



M. Unamuno (1864-1936)

Bilbon jaioa. Hasiara batean euskal munduan ere saiatu zen; baina laster utzi zuen, eta euskararen ezintasuna aipatzeari ekin zion. Beraren ustez, euskara ez zen gai hizkuntza modernoa izateko, goi mailako zientzia eta literaturarako.

XIX. mendea

Mende honetan Nafarroako ipar-ekialdeko haranetan atzerakada nabarmena izan zuen euskarak. Ondorioz, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko euskara bereziak galbidean gelditu ziren, hurrengo mendean behin betiko desagertuko zirelarik.

Bestalde, ordura arte mendeetan eta mendeetan euskara egiten zen eskualdeetan gaztelaniaren bultzadaz elebitasuna sartzen hasi zen eta honek euskara mintzatuaren atzerapen sozial eta geografikoa ekarri zuen.

Garai honetan Mundu Berrira emigrazio handia gertatu zen Euskal Herri osoan. Batetik, egoera ekonomikoa txarra zen, oro har. Iparraldean, gainera, Frantziako zazpi urteko soldadutza ezarri zuten. Hegoaldean gerra karlistak eta legeen galera. Horrela, baserri giroko eskualdeetako euskaldun ugari Ameriketara jo zuten, eremu euskaldunenak hustuz. Eta industrializazioak, berriz, langile asko erakarri zuen Espainia aldetik (37) eta egoera politiko-sozial hartan erdaldun haiek ezin ziren euskaldundu.

Mende honetan jadanik garrantzia hartu zuen euskararen ikerketa eta azterketa zientifikoak. Louis Lucian Bonapartek (35) zehaztasun handiz urte askotan euskalkiei buruz funtsezko lehen sailkapena egin eta mapa bat osatu zituen (36). Bizi guztia zientziari emaniko gizona, linguistikari eta bereziki euskarari eskaini zizkion bere urterik oparoenak.

Hugo Schuchardt eta Julien Vinson ere euskalari handiak izan ziren eta euskarak Euskal Herriatik kanpoko zientzi giroetan piztu zuen interes eta ikusminaren eredu.

LITERATURA

Pizkunde Garaia (1876-1936)

Bonaparte printzeak euskara ikertzeari ekin zionean, euskal laguntzaileak bilatu zituen herrialdeka, testuak itzultzeko eta informazioa biltzeko. Horrek euskararen aldeko interesa zabaldu zuen.

Lore Jokoak. Antoine Abadia lapurtarrak 1853an euskal jai batzuk antolatu zituen: dantzak, kirolak, bertsolariak, poemak (Elizanburu)... Folklorikoak ziren gehienbat, baina mugimendu kulturala ere sustatu zuten.

Batez ere, 1876tik aurrera (II. gerrate karlistaren ondoren) herri kontzientzia indartsua piztu zen eta honek ere euskal kultura indartu zuen. Aldizkari ugari agertu ziren: Iruñean, Donostian, Iparraldean, Gasteizen...; eta aldizkariekin batera beste hainbat proiektu. Bilbon, euskararen akademia sortzeko proiektua, hizkuntz mintegiak, teatroa, Lore Jokoak Hegoaldean...

Literaturan ere loraldia izan zen: bertsolari erromantikoen mugimendua (Bilintx, Iparragirre, Etxahun...), eleberriak, kazetaritza...

XIX. mendearen amaieran, aipagarri dira arrazoi desberdinengatik hiru pertsona hauek: Azkue, Arana eta Unamuno.



XX. mendea

XIX. mendearen amaieran euskara zientifikoki aztertzeko agertu ziren lehen kezkek eta urratsak XX. mendearen hasieran mamitu ziren:

- RIEV (*Revista Intenacional de Estudios Vascos*) aldizkaria funtsezkoa izan zen ordura arte eginak ziren eta une hartan egiten ari ziren ikerketa lanak argitara emateko. 1905. urtean sortu zen, Bilboko Julio Urkixoren zuzendaritzapean.
- Eusko Ikaskuntza elkarteak, 1918an sortua, euskal kulturaren bultzada berria bideratu eta bateratu zuen.
- Euskaltzaindia (Euskararen Akademia) 1919an sortu zuten Hegoaldeko lau diputazioek (38). R. M. Azkue izan zen zuzendari. Eratu zen urtetik gaurko egunera arte etengabe jardun du euskararen normalkuntza lanetan.

Eta zientzi aldizkari horiez gain, beste hainbat ere garatu ziren Iparraldean eta Hegoaldean.

1936an Espainian frankistek gerra hasi zuten Errepublikaren aurka. 1937an lehen Eusko Jaurlaritza sortu zen eta bai lehen Autonomi Estatutua; hartan, lehen aldiz, hizkuntza ofizialaren maila eman zitzaion euskarari.

Baina Estatutua eta Jaurlaritza desegin zituzten frankistek, gure herria hartu (39) eta Errepublika garaitu ondoren.

Gerraosteko urteak euskarak eta euskal kulturak bizi izan dituzten txarrenak izan ziren: debekuak (40, 41), erbesteratzeak, zapalkuntza, gaztelania eskoletan indarrez irakatsia, euskara gutxietsia, baztertua eta zigortua..., belaunaldi bat euskara betiko galtzeko zorian egon zen frankismoak iraun zuen bitartean, 40 urtez; eta horrela izan ez bazen ere, atzerakada nabarmena, behintzat, jasan zuen.

Gerraosteko lehen urteetan aldizkariak bilakatu ziren euskararen inguruko mugimenduaren zutaberi sendoena. Hasiera baten, honako hauek izan ziren garrantzitsuak: *Eusko Folklore*, *Ikuska*, *Eusko Jakintza*.

1950ean, Guatemalan Jokin Zaitegik Euzko Gogoia sortu

Aitzol (1896-1937)

Jose Ariztimuño. Tolosa.

Kultura oro har eta, batez ere, euskal kultura lantzeko eta zabaltzeko lan eskerga egin zuen. Sustatzaile izan zen. Arrazoi horregatik, 1937an frankistek harrapatu, ia heriotzeraino torturatu eta hil egin zuten.



38


Euskaltzaindiren gaur egungo egoitza. Bilboko Plaza Barria.

X. Lizardi (1896-1933)

Jose Maria Agirre. Zarautz.

Estilista fina. Poesiarako dohain bereziak zituen. Unamunoren jarraitzailearen aurrean hau idatzi zuen:

*Baina nik, bizkuntza larreakoa,
nabi haunat ere noranabikoa.
Jakite-begoek igoa,
soina zabar, berri gogoia;
muin betirakoa.*



Lauaxeta (1905-1937)

Esteba Urkiaga. Mungia.

Lizardik bezala, bide berriak ireki zituen euskal poesian, Europako poesiaren bidetik. Abertzale jatorra, frankistek Gasteizen fusilatu zuten.

*Dana emon bebar jako
maite dan askatasunari.*





Gernika bonbardatua, 1937.

39

zuen, euskaltzale exiliatuen ardatz bilakatu zena. "Katakunbetako belaunaldia" deitu zaio belaunadi horri.

Baina 50eko hamarkadan Euskal Herrian bertan susmatzen zen belaunaldi berri baten etorrera. *Egan* aldizkaria, Donostian, gai berriak jorratzen hasi zen, euskara eta estilo berri batekin. Halaber, aipagarria da *Jakin* aldizkariaren inguruko intelektual taldea.

Honek guztiak indar betea hartuko zuen hurrengo hamarkadan, 60ko hamarkadan. Besteak beste, aipagarri dira izen hauek, izan zuten eragin handiagatik: F. Krutwig, G. Aresti, J. L. Alvarez Enparantza *Txillardegi*, L. Villasante, K. Mitxelena. Literaturari dagokionez, aro berri bat hasi zela esan daiteke: idazle berriak eta obra modernoak (Mirande, Gabriel Aresti, Txillardegi...). Baita euskara batua, kantagintza berria, alfabetatze-euskalduntze mugimenduak, kultur asteak, euskal argi-taletxeak... Eta ikastolak.

60ko hamarkadatik aurrera, klandestinitatean, ikastolak sortzea (edo birsortzeak, gerra aurrean batzuk egon baitziren) euskararen transmisiorako ekarpen nabarmena izan zen, euskarazko irakaskuntza abian jarri zen eta. Euskalduntze eta alfabetatze mugimenduak ere urterik urtera indar handiagoa hartu zuen.

70eko hamarkadan euskara tekniko-zientifikoa bihurtu zen erronka nagusia: Elhuyar taldea, UEU (Udako Euskal Unibertsitatea), itzultzaile eskolak...


Francoren heriotzarekin (1975) garai berria hasi zen eta, ondorioz, Gernikako Autonomi Estatutua sinatu zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin; bertan finkatu zen euskara dela, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala.

1980an bigarren Eusko Jaurlaritzak sortu zen eta handik bi urtera bertako Legebiltzarrak Euskararen Erabileraren eta Normalkuntzarako Legea onetsi zuen; baita Euskal Irrati-Telebista sortzea ere (EITB, 1983), euskarazko komunikabideentzat aro berri bat ireki zuena.

Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, legez euskararen ofizialtasuna eremu "euskaldunetarako" baino ez zen onartu.

Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) irakaskuntza publikorako eredu elebidunak arautu ziren (A, B, D), apurka-apurka eta behetik hasita biztanle guztiei euskaraz ikasteko aukera emanez. Nafarroan ere irakaskuntzako hizkuntz ereduak arautu ziren, nahiz eta eremuen irizpidea aplikatu.

Euskararen aspaldiko beste erronka bat 1990 urtean bete zen: *Egunkaria*, euskara hutsezko lehen egunkaria argitaratzen hasi zen, hizkuntzaren normaltuntzari ekarpen handia egin diona.



Iturria: Euskal nazionalismoaren museoa.

40



Iturria: Euskal nazionalismoaren museoa.

41

Orixe (1888-1961)

Nikolas Ormaetxea. Orea.

Euskaltzaleak elkarteko kiderik ezagunena izan zen. Euskal mundu tradizionala (baserria) eta erlijiosotasuna nabari dira bere obretan. Besteak beste, *Euskaldunak* (1934) poema epikoaren egile. Eragin handia izan zuen gerra osteko mugimenduan.



7. EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Euskara Batua

XX. mendean zehar hainbat proiektu eta ettabaidatu izan ziren; baina 1968. urtean hasi zen Euskaltzaindia euskara batua finkatzen: kultur hizkuntz eredu bat, normalkuntzarako ezinbestekoa zena. Eredu hura, urteak joan urteak etorri, finkatuz joan da eta gaur egun Euskara Batua irakaskuntzan, administrazioan eta idatzirako hizkuntza bihurtu da, hizkuntza normaldua.

Hala ere, euskararen berri dugunetik, badakigu euskalkiak izan direla. Euskalkietako bat, erronkaria, XX. mendearen erdialdean iraungi zen. Euskalkiek dibertsitate eta aberastasuna ematen dizkiote euskarari, baina bizimodu modernorako (hedabideak, TB, irratia...) eredu batua behar-beharrezkoa zen. Orain, erronka honako hau da: euskalkien aberastasuna euskara batura ekartzea.

Euskalkien sailkapen klasifikazioa	Bizkaiera	Lapurtera
	Gipuzkera	Behenafarrera
	Goi nafarrera	Zuberera

Euskalkien eremuak beti ez datoz bat probintzien esparruekin. Esate baterako, bizkaiera Bizkaiko euskalki bakarra da, baina Gipuzkoako zati bat ere hartzen du (Deba Arroa) eta bai Arabako eremu euskaldun osoa; Goi nafarrera Gipuzkoako zati batean ere sartzen da eta abar.

Euskara batua irakaskuntzarako, komunikabide, administrazio eta literaturaren normalkuntzarako ezinbestekoa bada ere, euskalkietan dago oraindik ere euskara mintzatuaren indarra, bizitasuna eta tradizioa.

8. GURE HIZKUNTZAREN EGOERA GAUR

Mendeak joan mendeak etorri, euskara bizirik heldu da XXI. mendera. Historia gorabeheratsua izan badu ere, Europa zaharretik bizirik iraun duen hizkuntza bakarra dugu, nolabait. Baina, zelan heldu da garai modernora? Murrizturik, indarturik...?

Bistakoa da batez beste atzeratuz eta murriztuz joan dela mendez mende, inguruko –gaur egun barruko– erdaren enbataz.

Frankismoaren osteko lehen datuen arabera, zentsutik ateratakoak, EAerako elebidunen (euskara eta gaztelaniadunak) %21 ziren. Handik hamar urtera egin zen zentsuan, berriz, %25 inguru ziren elebidunak: honek erakusten du beheranzko joera gelditu eta euskara berreskuratuz doala, aurrera egiten ari dela.

Nafarroako datuen arabera egoera, zenbakitan, ez da hobetu azkenaldian; Iparraldean, ostera, etengabe galduz doa. Gainbehera horretan Frantziaren politika zentralistak zerikusi handia du.




60ko urteetan ikastolak ia klandestinoak ziren. Ume talde bat, andereñoekin.



Koldo Zuazo hizkuntzalariaren sailkapena, 1999.

K. Mitzelena (1915-1987)

Errenteria. Hizkuntza indoeuroparreko katedradun eta hainbat unibertsitatetako *honoris causa* doktore. Hizkuntzaz eta literaturaz goi mailako lan ugari egin zituen. Bera izan zen euskara batuaren teoriko eta gidari nagusia. Euskara modernotzeko lan eskerga egin zuen.



Iturria: Euskara, euskaldunen hizkuntza.



Iturria: Gara. Urtekarria, 2001.